

Irakaskintzaren atea zabaldu

Irakaskintza gure artean Gobernuaren eskutan egon zian da oraindano. Erriko beste norbaitek sortutako eskola izendatzeko, oraingoz ikastola Azkea izenez aitatutako gure. Onela, bi eratako eskolak kontuan artu bear ditugu: Gobernuokoak eta Azkeak.

Nazioako Aolku-Batzak, (Consejo Nacionalak, alegia) «Liburu Zuriaz» egindako agirian ikusten deguz. Eskola Azkeai bidea iriki zaie gerorako. Onela, Gobernuk sortutako ikastolez gainera, beste erriko edozeini eskua eman zaio, Eskola Azkeak sortzeko.

Ta bidezkoa zan bidea zabaltzea gai onetan. Gobernua bakarrik ezaizkan gauza, irakaskintza bear zan betean antolatzeko. Ikusi bestela, nola banatu diran Erriko Gastuzentzako laguntzak. Premi guzietako diru-laguntza, 80.000 milloi pezeta inguru dalarik, Eziera ta Jakintza saillerako 35.000 milloira eer ezta iristen. Eta orri, garbi dago, ezta irakaskintzako gastuak eskatzen dutena ordaintzeko naikoa.

Au onela dala, ezin konprenditu degu, nola zenbait itxu, oraindik bere bostean dauden, Gobernuko ez diran eskolak debekatzeko. Eztegu Estadua zeladore soil egin nai, erri-premietan bakarrik lan egin dezan. Gai onetan, bi aldetako alegiak batu nai genituzke, erriko jendearenak eta Estaduaarenak, alegia, Gobernua sail au habesteko ta arrotzeko gauza eza, zer burutsuagorik, erriko beste jende arruntei eskolak sortzeko atea zabaltzea baino?

Eskola Azkeei zearka begiratze ori, ba dakigu nondik sortzen dan: orainarte, izan ere, irakaskintza giza-sail batzuen esku gorde nai izan da. Eta lendik neurri oietan eroso bizi dan saillak, bildur die Eskola azkeetan sortu ditezken beste lege ta erabakiei. Ta lenbizi, garbi aitortu bear da, irakaskintza-Sailla ezatala irabazi aundika egiteko bide. Ikus, bestela, nola Gobernuaren laguntza bear izaten duten sail ontako lanak. Ta ikus ere, nola Diru-Etxeak eta beste irabaz aundi-zale diranak, ez duten sail ontan lan egiten. Ortik ezaipata aberasterki.

Ta gai oni bere bidea zabaltzeko, ez litzake bide txarra izango, erri xeaeren diru-emaitezko eskola azkeen alde jartzea. Onela, Gobernuaren eskutan ez diran eskolak, erri osoaren aleginez jaso ta antolatuko lirake. Ala ta guztiz ere, Gobernuaren laguntza zerbaite bearko luteke eskola auek; batez ere, Maixu ta Antolaketak osatzeko.

Beste aldetik, Gobernuak bere begia argi euki dezake, Eskola Azke auctan ematen dan irakaskintza zaituaz. Onela, Estaduak earbaki ditzake irakaskintza-Legeak eta bide batez, beste eskola auek denen probetxurako izan ditezken bere neurriak artu ditzake goitiki. Ortarako izan dedilla, onartzeko dagoen irakaskintza-Legea.

Ontan gauza bat ezin ditezke errekarra bota. Erriak, alegia, bere einetan zabal-zabalik bear du irakaskintza antola ta osatzeko bidea. Ez dezaigun, beraz, bide ori galazari. Erriko bakoitzaren alegia bearezkoa dan ezkerro, utzi dezaigun erriko jendeari Eskolak sortzeko ta habesteko eskubidea.

Sail au bere betean eratu nai bada, goiko ta beko guziet eman bear zaie sekua lan egiteko. Ta Banku ta beste aberas-jendea ere, sail onen laguntzaile egin bearko degu; gure dirudunak erriaren premi gorri onetan lotsagarri geldi ez ditezten. Erri xeaeren diru-arrarpenak eta dirudunen laguntza elkartuta, orduan bai; orduan arazo au egoki antolatzeko bidea arkitu al izango degu.

GERO ETA ZIURRAGO

Joan dan Apirillean berri gurantzitsu bat izan da munduan; baina hots haundiago egin dute beste mila gertakari sumek nik aipatuko dudan albiste ondorioitsu hunek baino.

Van de Kamp holandatar astronomoak, 1937 ezkerotzik jakintza-sail hortan gogoz lanegin ondoren, bere helburu lortu du. Alegia: gure planeta-sistema, eguzkiaren ingurukoa beraz, ez da bakarra izarregian, «Barnard» deritzan izarregian ingurutik, karkulu-bidez Van de Kamp'ek erakutsi duenez, gutxienez bi planeta daude.

Aski ote da, ordea, karkuluz hori frogatzea? Irakurlearen batek hori pentsatu duke beharbada bere kolkorako.

Bai, Aski da. Astronomian karkulu-bidez egiztatzeko, egiztatu egitea da. Barnard izarregian ingurutik, beraz, nahiz oraindik ez geure begiezin ikusia, planeta-sistema bat jiraten dala egiztaturik dagoela esan dezakegu. Gauza berbera gertatu zan Neptuno deritzan planetarekin: teleskopioz ikusi baino lehenago karkuluz jakin zan planeta bat zegoela. Leverrier astronomoak 1845-ean, Urano planetari buruzko karkulu hutsen bidez, beste planeta bat ba zegoela frogatu zuen, eta nun arki zituztean ere zehetasun guziaz aaidu zion Galle zeritzan Berlin'go astronomoari; eta hunek, bilaka hasi berria, 1846-eko irailaren 23-an, Leverrier'ek esandako burruian aurkitu zuen anartean ezogutzen ez zan «Neptuno» planeta iluna.

Karkulu-bide berberetik aurkitu zan «Pluton» deritzan planeta ere. Kasu huntan, halere, Lowell astronomoak (karkulu-bidez Pluton'en izatea eta hildoa egiztatu zituztene-tatik bai) teleskopioz planeta berria ikusia izan baino lehenago hil zan; Pluton planeta urrinoa 1916 arte ez baita ikusia izan. «Sirius» izar argitsuaren bizkia ere (ilun samarra haut, gaur «ikusia», urte askotan «karkuluta» izan zan soilik. Eta horrela beste anitz.

Barnard-izarregian ingurutik, beraz, segurantzia ba dugu orain, planeta-sistema bat dago. Van de Kamp'ek egiztatu duenez, planeta horiek urrutiago daude. Barnard-izarretik gure Lurra eguzikiatik baino: Marte eta Jupiter'en paretsu, gutxi gora-behera azaltzeko.

Gure galaxian jakina denez, ehun mila miloi izan daude; eta, jakina denez ere, gure galaxia ez da izarregian bakarra, eta ez gutxiagorik ere, miloika baitaude galaxiak berak. Hortara gauzak, planeta-sistema bakar bat dagoela pentsatzeko (geurea ez besterik, hain zuzen!) izpiritu-zabalera oso txikia behar da izan... Aspaldidanik astronomo guzietz ueste dute planeta-sistema asko dagoela geure galaxian bertan; eta gauza bera urrutiko beste galaxia galdu horietan. Iritzi huntakoa da Fred Hoyle astronomo ezaguna: «Hortaz, izarregi gehien inguruan planeta-sistemak daudela pentsatzen hasi behar duzite». Izar baten inguruan planeta-sistema bat jiratzeko normala zaio hain zuzen, eta ez batere harriga-

Naparruko erreinua

Liburu oso inportante batek buru erazi dit aste ontako artikulua. Navarre Romane deritza liburu ori.

Prantzeaz dago. Dom Luis Maria de Lojendio, donostiar beneditar ospetsuak eskribitua, Naparroa, dauden erromaniko-estil ooroitarriak estudiatzen ditu bertan.

Lojendio beneditarra Leyre-ko aita-prior zegoan. Leyre, Naparruko sustraia, Naparruko bilduma.

Ez da denbora asko Naparruko Leyre-tik Madrilgo Santa Krutz-ko gotzai mallako abade bezela eraman dutela.

Orrelako gizon azkar ta jakintsua zola naparrak galdu al-izan dute?

Dana dala, Navarre Romane deritzan liburu asieran Lojendio abade nagusiak Naparruko kondairatzaez eskribitu duan estudio argiak, nik Naparruari diotan maitasuna asko geiagotu didala esan nai nuke.

Gutxitan irakurri det Naparru buruz orren agerki argia.

Naparruaren euskal sustraiak orren zeatz azalduta gutxitan ikusi ditut.

Eta gipuzkoar ospetsu baten pirna lan orren baturan ikusteak, nolako poza eman didan, ez da errex esaten.

Nola diran gauzak! Artikulu oni asiera ematzen artu det Lojendio abade jaun beraren korta. Lagun artian askotan paastzen dana.

Ba dirudi igarri egiten diogula alkarri. Auxe esaten diot nere erantzueran biotzeko lagun on detan Lojendio abadeari.

Baian jarrai dezadan, Lojendio-rentzat Naparroaren eredu bikain eta berezienak, goitiki, iparretik datorzkie.

Naparruaren seigarren ibarrak edo merindadeak inportantzi ikaragarria zuen Erreinuaren arazoetarako. Dombanè Garazi-n zan seigarren merindadeko kapitula.

Nik esango nuke Naparroa obeto ententitzeko bear-bearezkoa dala Lojendio-ren lana irakurtzea. Maitasun biziz idatzia dago.

Neri iruditzen anai arteko gerra ondoren Naparruaren-ganako maitasun berezi bat sortu zaigula askeri.

Etzizan oraintxe esan Don Jose Ortega Gasset jaunak, Gerra zibil guziak sortzen zutela zoldaketa, soldadura bat.

Alkar obeto ezagutzeko gogo bizi bat sortu dala gure artian gerra ondoren zola ukatu?

Erromaniko-estilo Naparruko monumentuak gai artuta Lojendio abade nagusiak berebiziko omenaldia ezkeini diu gure-gure izandako Erreinu zaarari.

Ez da gai errex, Baian gure Lojendio-k erretxu ta argitu oso egiten du. Ez da meritu txikia.

Artearen bitartez istoria esplikatuta al-dan errexena. Eta urrutiko istorio asmakizunak argi zuzen biziz biribillatu.

Eskatu al-leike geiago?

Jose de Artea

KEZKAK

Barzelona

I. - Jende ikasiak eta erri-izkuntza

Uri aundia da Barzelona. Aren ondoren errikoa polik bat dirudi gure Donosti apainak. Izan ere, zenbait Donosti apainak ez ote da jendez eta zabalean, Barzelona beko bakarrik?

Euskeraz gainera, erdera apur bat ere ulertzen degunontzat arri-garri gertatzen da Barzelona. Gaztelaz itzezin ezkerro, mundu guztiak ulertu bear duela ueste izatean dute askok.

Uri izugarri artan, berriz, gaztelaz itzezin arren, toki arrotzean dagola iruditzen zaio bati. Zergatik? Alde guztietan «Catala» izkuntza nabaitzen dalako. Eta, ez-tzunaz beintzat, ezin ezer ulertu.

Egia da, bestelakorik ere aditu ori dala. Ainbeste ta ainbeste etorkin artu dituzte, izan ere, azken-

rria. Gauza berbera ueste du Wilowsky astronomoak: «Gure uestez, F2 baino urrerrago dauden uri guzietz dute planeta-sistema bota».

Orain, dana dala, ueste maila hortatik atera gera; et aziaz da Barnard-izarregian ondoren beheren planeta-sistema bat dagoela. Eta, Van de Kamp'ek berak egiztatu duenez, planeta bakar bat gutxienez beste hamar bat izarretan ere segurutzat jo ditezke. Hunek garrantzi haundia du nere uestez.

Baldintza batzuk betetzen diralarik, materiak berez ematen du bizi; eta planeta batzutan bizibaldintza horiek gertatzen dira. Beste planeta-sistema anitz dagoela egiztatu (eta lehenengo urratsa egitean, Van de Kamp'ek urrats zailena egin duela garbi dago), izartegian bakarrik ez gaudela gero eta ziurragotzat har ditezke (edo hartu behar dal). Gau izartusietan ez bide ger gaur bakarrik horietara so, eta eskeragatasin aivil hortan txundituak.

Munduari buruz dagoen teoria asko koloka gelditzen trii dala gauza nabarmena da. Ezagutzen dugun arima-kinka ez da inndik ere bitxia. Gizona ez baita itsua; ez arras beheren!

urte auctan. Geiegi ote da, irutik bat kanpotik joana dutela esatea?

Katalunyarrek ba-dakite gaztelaz ere. Barzelona'n beintzat errez mintzaten dira bietara. Bearko jakin gaztelaz! Bestela galdutak leudeke gaurko egoeran.

Eskola eta ikastetxeetan zortoz agindurik dago gaztelera. Egunkari, irrati eta urrutikuskin, danak gaztelera mintzo dira, zearo ez bada ere, ia-ia dana bai beintzat.

Guda aurretik zortzi egunkari argitaratzen zituzten katalunyaraz. Gaur? Egunkaririk bat bera ere ez! «Tele-estela» deritzan asterio-ko ateratzen dute zearo katalunyaraz; laugarren urtea darama eta 150'gn alea zan loreilaren 30'ekoa.

Jende ikasia bertako izkuntza-zaldea da bene-benetan. «Serra d'ora» izeneko aldizkariari begiratu besterik ez; gai sakonak eta idazle ikasiak ageri dira beti.

Erlijio-gaierri dagokienez, or daukate «Kristau-bizitzako arazoak» izeneko liburu-sorta, bakoitzean gai bereziren bat argituz aldizka ateratzen dutena.

Montserrat'eko lekaideak ez baitdaude lo. Gelenik-bat aieri zori zaizkie bi erutako aldizkari auek. Ez dute lan makala egiten erria argituzeko, jakintza zabaltzeko eta erri-izkuntza jasotzeko. Erriari serbitzu

egite ortan, a zer ikasbide bikaina, gure lekaide euskaldunak ikasiko balute!

Ortaz gainera, «62 argitaldaria» deritzan liburu-sail aundia daukate dana katalunyaraz. Orain zazpi urte asi zan argitaldari ori. Gai eta maila guzietako liburuak ateratzen ditu: jakintza, erlijioa, eleberrri edo nobelak eta bar. Gutxienez, lauren liburuz gora dioja, zatika ateratzen ari diran «Enziklopedia» aipatu gaue.

Ba-dituzte argitaldari geiago ere: «Nova terra» bereziki gizar-gaieki ematen dituna eta «Estela» batez ere erlijio-gaiekin. Beste bat, berriz, aurtzontzako eskola-liburuak ateratzen dituna.

1986'gn urtean 548 liburu atera zituzten katalunyaraz. Azkenengo bi urteetan ere geiago, noski, zearozgoko berririk arkitu ez badet ere.

Jakina, ia-ia zazpi milloi dira katalunyaraz itzeigten dutenak. Ba-daukate guk ainako taldea bai errotzeko eta bai irakurtzeko

Jende ikasiak... Alde ona dago! Euskalerriko dirudunak eta ikasirik, tartean bat edo beste ezik, dan-danak zearo eraldun agertzen zaizkigu beren jokabideetan: beti gaztelaz itzezin, beti gaztelaz idatzita.

Besterik da Katalunya'ko giroa. Ain besterik ere! Katalunyaraz idazten dute idazlerik ospetsuenek. Ba-dira ikastetxe Nagusi edo Unibersidadean beren irakaskintza katalunyaraz ematen duten irakasleak.

Eta dirudunak? Auek dira, noski, argitaldari geienik-bat laguntzen dietenak. Dirudunak... Ba-da Diru-esteu ospetsu bat, gero-ta indar aundiagoa artez nari dana, eta baruruko argibide, agiri eta kontu-eramate guztia katalunyaraz egiten duena.

Euskalerriko dirudunak eta ikasirik, noiz bihurtuko ote dira Euskalerriaren lagun eta babses? Noiz ekingo ote diote Euskera indartzeko langintzari?

Zeruko Argia

Zuzendaria:
ANTONIO IZURRIA ASTIARANO
 Naparroko-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxiuok argitaratuta
 (Carlos III, 22. Pamploña)

DONOSTIA'n:
 Oquendo, 22. Telf. 26666

ARPIDE SARIA:
 Urtekoa 190 Pta
 Atzerrian 265 *

Aldez artu nai bada, galdetu.